

S T A R T I N N O V A

# UBICAP S.A.

---

J.M. Barandiaran institutua

Joana Fernández

Naia Inclán

Laura Perea

Oihane Leyún

## SARRERA

**UBICAP S.A.** enpresak **txip** batzuk eta app bat proposatzen ditu jendea egunero galdu ahal dituen gauzak lokalizatuta izateko, eta galdu ezker, aurkitzeko. Gure lokalizadoreei esker, ondasunak modu **erraz** batean **aurkitu** ahal izango dira.

Txipak kontsumitzaileak aukeratzen duen edozein ondasunetan jarri ahal izango dira. Bezeroek **erabateko kontrola** izango dute txiparen gainean, haiek aukeratuko dute non jarri eta noiz piztu edo itzali; era berean, txipa edo galdutako objektua non dagoen jakiteko aukera izango dute. Gainera, gure bezeroen erraztasunerako, txipak aukeratzen diren lekuan jarri ahal izateko osagarriak ere jarriko ditugu salgai.

**Aplikazioak** funtzio oso garrantzitsua betetzen du galdutako objektua aurkitzeko orduan. Gure aplikazioaren bidez, **kokapena erraztu** egingo da eta kontsumitzaileekin partekatuko da. Kokapen berean egonez gero, hau da, gela, lokal... berean, txipak **soinuak eta bibrazioak** igortzeko aukera egongo da. Aldiz, ondasunetik urrun egonez gero, **kokapena mapa** baten bidez ikusi ahal izateaz gain, GPSari esker argibide batzuk jarraituz iritsi ahal izango da bertara.